

**250 proiektuk baino gehiagok hartu dute parte gazteak
emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan inplikatzera
bideraturiko Beldur Barik lehiaketaren bigarren edizioan**


- *1.000 euroko saria banatuko da kategoria bakoitzean (12-17 urte / 18-26 urte), eta sari berezia egongo da web orrialdearen bitartez (www.beldurbarik.org) egindako herri-bozketa aintzat hartuta. Udal batzuek, halaber, sariak emango dituzte herri mailan.*
- *Sariak azaroaren 26an emango dira, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Donostiako Kursaal Zentroan, TOKAPETA 2011 izeneko amaiera ekitaldian. Horrekin batera, jarduera egitarau zabala eta emakumeen aldeko kolektibo eta elkarten partaidetza ere egongo da.*
- *Beldur Barik! EUDELeK sustatutako programa da, Berdintasunaren aldeko udalerriek osatutako Berdinsarearen bitartez, eta euskal erakunde guztiek babesten dute.*
- *Aurkeztutako lan guztiak www.beldurbarik.org web orrialdean egongo dira ikusgai.*

Bilbon, 2011ko azaroaren 23an. Guztira 250 lan (iaz baino ehun bat gehiago) aurkeztu dira Beldur Barik lehiaketaren bigarren ediziora. Lehiaketaren helburua da gazteek emakumeenganako indarkeriaren kontra parte har dezaten, sormen artistikoaren bitartez.

Lehiaketak neska-mutiko gazteak ditu ardatz, eta xede nagusia sormen artistikoa adierazpen-modu gisa sustatzea da, **“Beldur Barik” jarrera** agerrarazteko, hain zuzen ere, sexu-erasoen kontra egiten duen eta berdintasunezko harremanen alde egiten duen jarrera. Horregatik, ekimen honetan **mota orotako euskarriak** sartzen dira: ekintzak, ideiak, bideoak, argazkiak, proiektuak, musika, dantza, argazkiak, performancea, eskultura... nahiz eta lan gehienak **ikus-entzunezko euskarrian** aurkeztu.

Aurkeztutako lanetatik, 147 lan 1 eta 17 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduriko mailari dagozkio, eta 103, berriz, 18 eta 26 urte bitarteko gazteen mailari.

Aurkeztutako proiektu gehienak taldekako lanak dira, eta, horietako batzuk, ikaskideen artean egindakoak; beraz, parte hartu duten gazteen kopurua nahiko handia da.



Lehiaketak 1.000 euroko sari bi aurreikusten ditu maila edo kategoria bakoitzerako, hain zuzen ere, 12-17 urte bitartekoentzat eta 18-26 urte bitartekoentzat. Berritasun gisa, aurten, 300 euroko sari berezia gehitu da; www.beldurbarik.org web orrialdearen bitartez egingo den herri-bozketa batek erabakiko du nori eman saria. Udal batzuek, gainera, herri mailako sari propioak deitu dituzte, udalerri barruan aurkeztutako lanetarako.


Aurten badago beste berritasun bat ere, hau da, lan guztiak web orrialdean bertan ikus daitezke: <http://www.beldurbarik.org>

Sari banaketa ofiziala azaroaren 26an (larunbata) izango da, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Donostiako Kursaal Zentroan, azaroaren 25eko (Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna) Beldur Barik! kanpainaren kariaz antolatutako “TOPAKETA 2011” jaialdiaren amaiera ekitaldian, eta, bertan, hainbat jarduera antolatuko dira egun osoan, kolektibo eta elkarte feministek dinamizatuta.

Beldur Barik! lehiaketa

EUDELeK, Euskadiko Udalen Elkarteak, iaz abiarazi zuen lehiaketa, Berdinsarearen (euskal biztanleriaren %75 biltzen duten 52 udalerriren partaidetza duen sarea) bitartez eta Emakundek, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek bultzatuta.

Beldur Barik programa Berdinsareak azaroaren 25aren (Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna) inguruan antolatutako kanpainaren baitan dago, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) eta EITBren laguntza du. Bigarren edizio honetan, lehiaketaren helburua da aurkeztutako lanak aintzat hartzea, baloratzea eta sustatzea; izan ere, lanotan argi ikusten da neska-mutilek zelan egiten dioten aurre emakumeenganako gaur eguneko desberdintasun egoerari; eta hori, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeriaren aurkako irimotasunean oinarritutako jarrera eta portaerekin.



Informazio gehiagorako:

Alma Moro

Tel.: 94 423 15 00

23 04

moro.a@eudel.net

Inés Jauregui

Tel.: 94 401 53 06/ 628 27

ines@vkcomunicacion.com